

LURDESTIK GATOK

1.

Hainbestegarren urtean
etengabeko katean,
betiko talde bat izan gara
Lurdesko partean.
Luzaro batu gaitean,
ez da izango kaltean;
Lurdesko Amak zaindu gaizala
bien bitartean.

2.

Ekainaren hasieran
guk beti ohi dogun eran,
Lurdeserako erromes-deia
jatorku aukeran.
Zetan joaten ete geran?
Ezin esan gaur hizkeran;
etorri eta zuok ikusi,
gu gabiltz primeran.

3.

Eskari edo promesa,
penitentzi ta erreza;
seme gaixoak bila dabilta
Amaren babesa.
Hango zotin ta inkesa,
gizonaren ezereza...
Han ez da errez nor dan igertzen
pobre ta markesa.

4.

Gauetz Errosarioa,
betiko usadioa;
mila hizkuntzaz Ave ta Agur,
zer murmurioa!
Amaren pozkariora,
graziazko jariora...
Plaza betean dator Amaren
bedeinkazioa.

5.

Ezin da ahaztu inola
han ikusten da kurutze barik
inor ez dagola.
Negar, izerdi, odola
penitentziz dariola;
ez da bihotzik urtzen ez danik
ez bada marmola.

6.

Hau da Lurdesko klasia
badago zer ikasia:
Eleiz ta kale, gaixoentzat da
lehenengo plazia.
Hau da kristau errazia,
gaixoentzat arnasia:
seme-alaben bitartez doa
Amaren grazia.

7.

Ez deusku kendu gaixorik,
inor ez dago osorik;
ez dogu lortu mirari eta
beste holakorik.
Badauka hobeagorik,
emon ta esatekorik!
Ez da izango munduan beste
Ama hain goxorik!

8.

Hau leku zoragarria,
Amak guretzat jarria:
bere oinetan dauka nahi haina
polpol iturria.
Mama osasungarria,
asetzeko egarria;
goxatzen ditu batera bihotz
eta eztarria.

9

Eskari bat azkenean,
Ama, danon izenean:
Seme-alabok gorde gagizuz
bide zuzenean.
Batetik sinismenean,
bestetik osasunean;
zeure ondoan hartu gagizuz
horruntz goazenean.

A.Martzel